JANTOKI ZERBITZUA ERABILTZEKO BALDINTZAK ETA ARAUAK

HARRERA TOKIA ETA ORDUTEGIA

Klase egunetan 8:45etik 9:15era, **948 38 27 56** telefonora deitu beharko duzue, dieta bereziak, altak, bajak…eskatzeko. Mezua erantzungailuan uzteko aukera dago, ikaslearen izen abizenak eta maila ondo adieraziz.

Jantokiko arduradunarekin hitz egiteko jantokiko telefonora hots egin beharko duzue, 10:30etatik 12:30etara.

MENU SOLTEAK

Bazkaltiar bakoitzak eguneko 7,00€ ordainduko du. Diru kopuru hau idazkaritzan ordainduko da.

BAJAK ETA ALTA BERRIAK

Idazkaritzan komunikatu behar dira aurreko hilabeteko 25 eta 30 egunen artean. Baja eman ondorengo hilabetetik aurrera bazkaltiarrak zerbitzuaren erabilera egin nahiko balu, egun horiek (nahiz eta hilabete osoa izan) "MENU SOLTEA"-k izango lirateke.

EZ JOANDAKO ETA ABISATUTAKO EGUNAREN DIRU-ITZULPENA

948 38 27 56 telefonora deituz gero 8:45 eta 9:15ak artean, 2,80€ itzuliko da egun bakoitzeko.

ITZULITAKO ORDAIN-AGIRIAK

Itzulitako ordain-agiri bakoitzarengatik, bankuko gastuei eta kudeaketari aurre egiteko kontzeptua ordainduko da, 2€. Ordain-agiriaren kopurua gehi itzulpenaren gastua 10 eguneko epean ordaindu beharko da. Ez egitekotan umea ez da jantokian sartuko, zorra kendu arte.

JANTOKIAN BAZKALTZEKO ESKUBIDEAREN GALERA

- Aurreko hilabetean izandako zorrarengatik.
- Ikasturtea bukatu baino lehen, zor guztiak kitatu behar dira. Honela ez bada, datorren ikasturtean jantokia erabiltzeko ESKUBIDE OSOA GALDUKO DA.
- Jarrera arazoak eta edozein pertsonarekiko errespetu faltak izateagatik, jantokian edo patioan.
- Jantokiko arauak ez errespetatzeagatik.

_____ J./And. _____ aitak, amak edo tutoreak, Antsoaingo EZKABA I.P. eskola jantokirako ezarritako baldintzak eta arauak onartzen ditut. 2018-2019 ikasturtea.

ESKATZAILEAREN SINADURA